

2020ko MAIATZAREN 5eko BILKURA BEREZIA

LEHEN DEIALDIA

Bi mila eta hogeiko maiatzaren bostean, hamabietan, Artzibarko Udala bildu da, legez horretarako deitutako ezohiko bilkuran, eta lehen deialdian, bitarteko elektronikoen bidez (bideokonferentzia), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46.3 artikulua, COVID19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak hartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketa (2020ko apirilaren 1eko BOE).

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla
Juan Jose Echavarren Salvador
Francisco Javier Erro Ramirez
Garoa Gartziandia Agirrezabala
Carlos Iriarte Iraceburu
Clara Ruiz de Gauna Borreguero

Idazkaria: Joana Estanga Urroz

Alkate-udalburuak bilkurari hasiera eman ondoren gai zerrendako gaiei ekin zaie, hona hemen:

1.- Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.

2020ko urtarrilaren 28an egindako osoko bilkura arruntaren akta ez da irakurri zinegotziek aldeztatik haren fotokopia jaso dutelako, bilkura honetako deialdiarekin batera. Alkate udal buruak galdetu du zinegotziren batek aurreko bilkuren aktari oharpenik egin nahi dion. Inork ez du ezer esan, eta, bozketa egin ondoren, aho batez onartu da. Udaletxean egingo den hurrengo osoko bilkuran sinatuko da.

2.- Baso lanen adjudikazioa, 2020 kanpaina

Baso-sektorea, oro har, eta baso-lanak, bereziki, funtsezko jardueratzat jotzen dira osasun publikoa bermatzeko, klima-aldaketaren ondorioak arintzen dituztelako, gizarteari ondasun berriztagarri garrantzitsuak ematen dizkiotelako (energia, elikagaiak) eta ongizate fisiko eta psikologikorako hain funtsezkoak diren aire zabaleko jarduerak garatzea ahalbidetzen dutelako.

Alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 462/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. puntuak aukera ematen du kontratazio-prozedurak horrelako jardueretarako epe-etetea aplikatu gabe egiteko. Hortaz, 2019ko azaroaren 19ko

118/2019 eta 119/2019 ebazpenen bidez eta Ingurumeneko Zuzendari Nagusiaren ebazpenaren bidez baso lanak adjudikatzea erabaki da:

A) Abeltzaintzako sasi-garbiketak (8. Neurria):

Ikusirik LUR GEROAko Xabier Erbitik Artzibarko abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko prestatu duen proiektua 2020ko diru-laguntzen deialdira aurkezteko.

Ikusirik 119/2019 Ebazpena, azaroaren 19koa, Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Artzibarko Udalari 13.445,80 euroko diru-laguntza ematen baitzaio 8. neurriko separata gauzatzeko, abeltzaintzako sastrakak kentzekoa, Arrieta, Villanueva eta Urdiritzen.

Ikusirik Pablo Erro Urrutia eta Garralda Villanueva Maria Cristina S.C.-k (Zibur) 2020ko martxoaren 20an aurkeztu zuten eskaintza 21.017,85 eurokoa dela (guztira).

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Legearen 81. artikuluan zenbateko txikiagoko kontratuen araubide berezia arautzen dela eta horren arabera alde aurretik kreditua erreserbatuta gotea eta faktura aurkeztea baino ezin dela eskatu

Ikusirik 2020ko ekitaldiko aurrekontu ekonomikoan, 1722 6310001 Baso lanak 2020 partidaren, kontratu honetatik eratorritako betebeharreri aurre egiteko kreditu nahikoa dagoela.

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Lur Geroako Xabier Erbitik 2019ko uztailaren 9an idatzitako proiektua onartzea.

BIGARREN: Abeltzaintzako sasi-garbiketak egiteko 2020ko 8. neurriko baso-lanak egiteko kontratua Pablo Erro Urrutia eta Garralda Villanueva Maria Cristina S.C.ri esleitzea. (Zibur), helbidea Aurizberrin duena; guztira, 21.017,85 €(dena barne).

HIRUGARREN: Pablo Erro Urrutia eta Garralda Villanueva Maria Cristina S.C.ri (Zibur) erabaki honen berri ematea eta aldi berean oroitaraztea lanak 2020ko irailaren 30a baino lehen bukatu eta fakturatu behar direla.

LAUGARREN: Kontratu hau diruz lagundu ahal izango du Nafarroako Gobernuak, eta, beraz, Lur Geroa SL-k idatzitako 2019ko uztailaren 9ko proiektuari hertsiki lotuta gauzatuko dira lanak. Edozein aldaketa egiteko, alde aurretik kontsultatu eta onartu beharko zaio Obra Zuzendaritzari. Era berean, ezarritako gehieneko epea amaitu baino lehen gauzatu beharko da kontratu osoa, eta, bete ezean, Udalak 2/2018 Foru Legean jasotako zehapen egokiak ezarri ahal izango ditu.

B) Oihaneko pistak hobetu eta egokitzea (4. Neurria):

Ikusirik LUR GEROAko Xabier Erbitik Artzibarko abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko prestatu duen proiektua 2020ko diru-laguntzen deialdira aurkezteko.

Ikusirik 118/2019 Ebazpena, azaroaren 19koa, Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Artzibarko Udalari 28.312,45 euroko diru-laguntza ematen baitzaio 4. neurri separata gauzatzeko, hau da, bide-azpiegiturak hobetzeko, Nagoren, Arrietan eta Hiriberrin.

Ikusirik Excavaciones Abaurrea S.L-k 2020ko apirilaren 29an 47.800,00 euroko (BEZ barne) eskaintza ekonomikoa egin duela.

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Legearen 81. artikuluan zenbateko txikiagoko kontratuen araubide berezia arautzen dela eta horren arabera alde aurretik kreditua erreserbatuta egotea eta faktura aurkeztea baino ezin dela eskatu

Ikusirik 2020ko ekitaldiko aurrekontu ekonomikoan, 1722 6310001 Baso lanak 2020 partidari, kontratu honetatik eratorritako betebeharreri aurre egiteko kreditu nahikoa dagoela.

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Lur Geroako Xabier Erbitik 2019ko uztailearen 9an idatzitako proiektua onartzea.

BIGARREN: Baso-lanak egiteko 2020rako kontratua, 4. neurria, baso-pistak hobetzeko, Agoitzen egoitza duen Excavaciones Abaurrea SLri esleitzea, 39.504,13 €-tan guztira (BEZik gabe), hau da, 47.800,00 €-tan (BEZa barne).

HIRUGARREN: Excavaciones Abaurrea SLri erabaki honen berri ematea eta aldi berean oroitartzea lanak 2020ko irailaren 30erako bukatuak eta fakturatuak egon behar dutela.

LAUGARREN: Kontratu hau diruz lagundu ahal izango du Nafarroako Gobernuak, eta, beraz, Lur Geroa SLk idatzitako 2019ko uztailearen 9ko proiektuari hertsiki lotuta gauzatuko dira lanak. Edozein aldaketa egiteko, alde aurretik kontsultatu eta onartu beharko zaio Obra Zuzendaritzari. Era berean, ezarritako gehieneko epea amaitu baino lehen gauzatu beharko da kontratu osoa, eta, bete ezean, Udalak 2/2018 Foru Legean jasotako zehapen egokiak ezarri ahal izango ditu.

Baso lanen zuzendaritza. 2020ko kanpaina:

Ondoren erabaki da aho batez:

LEHENIK: “Artzibarko Baso Lanak 2020ko kanpaina” obraren zuzendaritza LUR GEROAri adjudikatzea, IFZ B31909781 eta helbidea Urbasa kalea 1 PK 31860 Irurtzun (Nafarroa).

Adjudikazio honetarako sistema faktura bidezkoa da, Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. Artikuluaren arabera.

BIGARREN: LUR GEROAri erabaki honen berri ematea.

3.- Ibarreko abeltzain berriei herri-bazkalekuak adjudikatzea

Ikusirik Iñigo Ayechu Urtasunen eskaera, Artzibarren bizi den abeltzain gazte gisa instalatu dela azaltzen baitu.

Ikusirik Maria Teresa Gutierrez Cuencaren eskaera, Udalaren bazkalekuetan azalera emateko eskatzen baitu.

Bi eskatzaileek ibarreko gainerako abeltzainei eskatzen zaizkien esleipen-baldintzak betetzen dituztela kontuan hartuta, besteak beste:

- a) Adinez nagusia izatea edo adingabe emantzipatuta edo legez gaituta.
- b) Artzibarko Biztanleen Udal Erroldan bizilagun gisa inskribatuta egotea, bi (2) urteko antzinatasunarekin.
- c) ARTZIBARREN bizitzea, modu eraginkorrean eta jarraituan, urtean bederatzi hilabetez gutxienez.
- d) Artzibarko Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- e) Azienda eskatzailearen izenean inskribatuta dagoela egiaztatzea (abeltzaintzako txartela aurkeztea)
- f) Nahitaezko osasun-kanpainak eginda dituela eta, gainera, Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen osasun-arau guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen osasun-ziurtagiria.

Ikusirik Udaleko Osoko Bilkurak 2018ko uztailaren 31n onartutako Artzibarko Gorraizko herri-larreen aprobetxamendua bizilagunei zuzenean esleitzeko baldintza-agiriaren hamabigarren baldintza:

***HAMABIGARRENA.-** Agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen abeltzain berriren batek Artzibarko Udalari Gorraizko herri-larreak aprobetxatzeko eskatzen badio, Artzibarko Udalak esleipenak berrikusteko eta bidezko banaketa berri bat egiteko ahalmena izango du.*

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Iñigo Ayechu Urtasuni Artzibarko Udaleko bazkalekuetako 20 ha esleitzea, NP Bren adierazpenaren ondorioetarako, urteko 360 euro ordainduta.

BIGARREN: Maria Teresa Gutierrez Cuencari Artzibarko Udaleko bazkalekuetako 8 ha esleitzea, NP Bren adierazpenaren ondorioetarako, urteko 144 euro ordainduta.

HIRUGARREN: Bazkalekuen urteko kuota modu proportzionalen murriztea, abeltzain berriak sartzeagatik esleitutako azalera-murrizketa izan duten gainerako abeltzainekiko.

LAUGARREN: Interesdunei erabaki honen berri ematea.

4.- Eskaerak eta galderak.

Ez dago

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hamairuak eta hogei direlarik, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.